



CAMPAÑA NAVIDAD

“TU COMPROMISO ILUMINA LA VIDA”

24 de DICIEMBRE 2017

ENTRADA

Una mirada dolorida a los acontecimientos del mundo puede llevarnos al desaliento. Es verdad que ocurren cosas terribles (guerras, atentados, hambrunas, miseria, corrupción, paro, confusión...). Pero, hay muchas cosas hermosas y la Navidad nos significa las dos realidades. Un Dios que es Amor y que nos anima y actúa como amorosamente y un pueblo que se levanta, nos levantamos, como lo hizo María, después de escuchar el anuncio del Señor en su corazón.

Es por eso que hoy la Iglesia través de Cáritas, nos invita a actuar superando miedos y frustraciones para vivir el gozo del Adviento y la Navidad a la luz de Isabel y María, dos mujeres fieles y generosas, que dejaron su huella de amor y compromiso, iluminándonos el vivir diario con otra luz.

PERDON

Antes de celebrar la Eucaristía de hoy necesitamos atender la llamada que Dios nos hace al compromiso

- Por nuestra cerrazón y ofuscación en lo nuestro. Señor ten piedad.
- Por nuestra incapacidad para encontrarnos con el necesitado. Cristo ten piedad.
- Por nuestra inconsciencia ante los sufrimientos ajenos. Señor ten piedad

LECTURAS

2 Sam 7, 1-5.8b-11.16: Dios quiere un lugar donde habitar, pero no siempre el que preparamos nosotros es el adecuado, sino al contrario, vamos a lo nuestro y no a lo que él pretende.

Rom 16, 25-27: Es la conclusión de la Carta a los Romanos. Una alabanza fundamental para entender la salvación abierta a todos por Jesucristo.

Lc 1, 26-38: Dios llama a María a un gozo desbordante, la alegría del evangelio está presente y, ella asume con gozo, el compromiso de una vida nueva.

SUGERENCIAS PARA LA HOMILIA

Uno de los rasgos característicos del amor cristiano es saber acudir junto a quien puede estar necesitando nuestra presencia. Este salir de nosotros mismos para mirar en los otros la vida que Dios nos ha dado, acaso sea la expresión más profunda de lo que llamamos compromiso.

Y este fue precisamente el primer gesto de María después de acoger con fe la misión de ser madre de Jesús-Salvador. Se ponen en camino y marcha junto a otra mujer que necesita, en estos momentos, su cercanía, su ayuda. María se ha puesto en camino.

La Virgen de la Visitación, comprometida con la vida de todos, en ese momento decisivo de su vida particular, en que podía haber quedado arrebatada en el Misterio, ha optado por los necesitados. No lleva nada, se entrega a sí misma. Da su tiempo, su amistad, el cuidado, el vigor y el entusiasmo de sus manos jóvenes.

Hay una manera de comprometernos y de amar que deberíamos de recuperar, en nuestros días, y que consiste en “acompañar a vivir la vida diaria”. Cuánto bien se puede hacer a quien se encuentra hundido en la soledad, o vencido por las circunstancias, acaso bloqueado por la depresión o atrapado por la enfermedad incurable o, sencillamente, vacío de toda alegría y de toda esperanza de vida.

Gracias a Dios, Caritas recuerda a nuestra Iglesia y a la sociedad, en general, que no es verdad que todos vivamos felices y contentos, y aunque esto puede desagradar, a algunos, no lo es porque sea falso sino porque es demasiado evidente, y no se puede ocultar. Ahí siguen estando los parados de larga duración, los ancianos solos e incluso abandonados, los alcohólicos empedernidos, los toxicómanos, los marginados, los refugiados, las personas con problemas mentales, y tantos otros.

El que cree en la encarnación de un Dios-Amor que, ha querido compartir nuestra vida y acompañarnos en nuestra indigencia, revelándose plenamente en Jesús, ese creyente, se siente llamado a vivir de otra manera, el mandamiento del amor cristiano, haciendo del compromiso, la fuerza vital de sus decisiones, sin buscar excusas ni valerse de privilegios, en una Tierra que está siendo expoliada en favor de una economía financiera sin escrúpulos.

Pero Dios sigue actuando, esa es la verdad y, está con nosotros. Está haciendo historia, con mayúscula, también entre nosotros, en nuestras casas, barrios y pueblos, en nuestras comunidades y parroquias. Somos parte de una profunda corriente histórica de Salvación, que Dios conduce y que nosotros acompañamos, con algunas obras de perdón y misericordia, en medio de incertidumbres, penas, gozos y alegrías.

Es Navidad. Es tiempo de gozar, de alegrarnos, de acoger como María a este Dios nuestro y llenarnos de Él, para colaborar con sus planes, que son planes de liberación, de humanidad, de amor (caritas) desinteresados. Ahora a Dios le podemos y le debemos encontrar en los acontecimientos de la vida y podemos y debemos llevar a Dios a las personas más vulnerables. No se trata de hacer “cosas grandes. Quizás sencillamente, se trate de ofrecer amistad a ese vecino hundido en la soledad y la desconfianza, igual se trata de estar cerca de ese joven que sufre depresión nerviosa, o de tener paciencia con ese anciano que busca ser escuchado por alguien y a quien hay que repetir muchas veces las mismas cosas sin perder la paciencia. Quizás se trate de estar junto a esos padres que tienen a su hijo en la cárcel, o de alegrar el rostro de ese niño solitario marcado por la separación de sus padres.

ORACION DE LOS FIELES

Junto con María, vamos a proclamar las grandezas de Dios, y por su intercesión ponemos en sus manos nuestras súplicas, con la seguridad de ser escuchados.

1. Por la Iglesia que formamos todos, que sepamos presentar con sabiduría y verdad a Jesucristo Salvador, en medio de la vida cotidiana. *Roguemos al Señor.*
2. Por nuestros gobernantes: para que el bien común sea el horizonte que guía sus decisiones en favor de los más pobres. *Roguemos al Señor.*

3. Por los habitantes de los países de la primera Navidad, los palestinos, los israelíes y los cristianos de aquellas tierras, para que la paz y la justicia prosperen. *Roguemos al Señor.*
4. Por Cáritas de Gipuzkoa, la de nuestras parroquias, sus voluntarios y trabajadores, para que su tarea sea fructífera y ejemplar. *Roguemos al Señor.*

Recibe nuestro agradecimiento Señor, por la generosidad que has tenido mandando al mundo a tu propio Hijo para salvarnos y, que vive y reino contigo en la unidad del Espíritu Santo. Amén.

COLECTA

La colecta de este día está destinada a Cáritas de la Parroquia, para que podamos disponer de los fondos necesarios y, ayudar a las personas y familias más necesitadas de nuestro barrio y/o pueblo.

LA PAZ

El mayor pecado de la tierra es la división y el enfrentamiento entre los seres humanos. La mayor desgracia es el olvido y la indiferencia ante el drama de media humanidad que malvive en la miseria. No hay paz si no hay justicia y respeto a los derechos humanos de todos. Cada Navidad volvemos a escuchar el mensaje de paz que nos viene de Dios: Gloria a Dios en las alturas y paz a las gentes de buena voluntad. Démonos la paz y llevémosla a nuestras casas y calles.



GABONETAKO KANPAINA

“ZURE KONPROMISOAK ARGI EGITEN DIO BIZITZARI”

2017ko ABENDUAREN 24a

SARRERA

Munduko gertakariei minez begiratzeak etsiarazi egiten digu. Egia da, bai, gauza lazgarriak gertatzen direla (gerrak, atentatuak, goseteak, miseria, ustelkeria, langabezia, nahasmendua...). Gauza ederrak ere erruz daude, ordea, eta Gabonek errealitate biak jartzen dizkigute parez pare: alde batetik Jainkoa, Maitasuna bera, adore ematen diguna eta maitasunez jarduten duena; eta bestetik herria, altxatzen dena, altxatzen garena, Mariak Jaunaren aldarrikapena bihotzean entzun ondoren egin zuen bezalaxe.

Hori dela eta, Elizak, Caritasen bitartez, beldur eta frustrazioak gainditzera bultzatzen gaitu gaur, abenduaz eta Gabonez goza dezagun Isabelen eta Mariaren argitan. Bi emakume fidel eta eskuzabal haiek maitasunaren eta konpromisoaren arrastoa utzi ziguten, eta eguneroko bizimodua bestelako argi batekin edertu.

BARKAMENA

Gaurko Eukaristia ospatu aurretik, Jainkoak konpromisorako egiten digun deiari erantzun behar diogu:

- Geurearekin tematzen eta itsutzen garelako. Erruki, Jauna.
- Premia duenarekin topo egiteko gai ez garelako. Erruki, Jauna.
- Besteen sufrimenduaz arduratzen ez garelako. Erruki, Jauna.

IRAKURKETAK

2 Sam 7, 1-5.8b-11.16: Jaunak bizitzeko leku bat nahi du, baina guk prestatzen duguna ez da beti egokiena izaten, kontrara baizik: geureari jarraitzen diogu, eta ez hark esaten digunari.

Rom 16, 25-27: Erromatarrei egindako gutunaren ondorioa da, hots, Jesu Kristok denoi zabaldu zigun salbazioa ulertzeko behar-beharrezko gorespena.

Lc 1, 26-38: Jainkoak pozarren dei egiten dio Mariari, ebanjelioaren alaitasuna igartzen da, eta Mariak atseginez hartzen du bititza berri bati ekiteko konpromisoa.

HOMILIARAKO IRADOKIZUNAK

Maitasun kristauaren ezaugarri nagusietako bat gu behar gaituenari laguntzen jakitea da. Geure barnetik atera eta Jainkoak eman digun bititza besteengan ikuste hori, beharbada, konpromisoa esaten diogun horren adierazpen sakonena da. Eta, hain zuzen ere, horixe egin zuen Mariak aurrenekoz, Jesus Salbatzailearen ama izateko misioari fedez heldu ostean. Bidean eta martxan jarri da orain bere gertutasuna, bere laguntza behar duen beste emakume batekin batera. Mariak bideari ekin dio.

Ikustaldiaren Ama Birjina denon bizitzarekin konprometituta dago, eta, bere bizitzako une erabakigarri horretan, non Misterioan liluratuta gelditzeko aukera baitzuen, behartsuen alde egin du. Ez darama ezer, bere buruari eman zaio. Bere denbora, adiskidetasuna, zaintza eta bere esku gazteen kemena eta gogoia eman ditu.

Garaiotan, konpromisoa hartzeko eta maitatzeko modu bat berreskuratu behar genuke: “eguneroko bizimodua bizitzen laguntzea”. Izugarrizko mesedea egin dakiok bakardadean hondoratuta dagoenari, egoerak gaina hartu dionari, depresioaren ondorioz blokeatuta dagoenari, erremediorik gabeko gaixotasunen bat harrapatu duenari edo, besterik gabe, poztasuna eta bizitzeko itxaropena falta duenari.

Jainkoari esker, Caritasek gure Elizari eta oro har gizarteari gogorarazten dio ez dela egia denok zoriontsu eta pozik bizi garenik. Baliteke batzuek hori atsegin ez izatea, baina ez da gezurra delako, ez, baizik eta agerikoegia delako eta ezin delako ezkutatu. Hor daude, oraindik ere, luzaroko langabeak, bakarrik eta are abandonaturik dauden edadetuak, alkoholiko porrokatuak, toxikomanoak, baztertuak, errefuxiatuak, buru-arazoak dituzten pertsonak eta beste batzuk.

Norbaitek sinesten badu gure bizitza partekatu eta gure behartasunean lagundu nahi izan digun Jainko edo Maitasun hori Jesusengan oso- osorik haragitu zela, sinestun horrek sentituko du beste era batera bizi behar duela, maitasun kristauaren agindua bete behar duela, konpromisoa bere erabakien oinarritzat hartuz, aitzakiarik bilatu gabe eta pribilegioez baliatu gabe, eskrupulurik gabeko finantza-ekonomia baten alde indarrez ebasten duten Lurrean.

Baina Jainkoa hor dago oraindik, hori da egia, eta geurekin dago. Historia egiten ari da, egundoko historia, baita gure artean ere, gure etxe, auzo eta herrietan, gure komunitate eta parroketan. Salbazioaren joera historiko sakon baten parte gara; Jainkoak gidatzen

du, eta guk laguntza ematen dugu, zenbait barkamen eta erruki jasota, zalantzen, nahigabeen, atseginen eta pozen erdian.

Gabonak dira. Gozatzeko garaia da, pozik egotekoa, Mariak bezala geure Jainkoari harrera egitekoa, Harekin asetzekoa, haren askapen-planetan, gizatasun-planetan eta maitasun-planetan (caritas) eskuzabaltasunez parte hartzekoa. Orain, Jainkoa bizitzako gertakarietan aurki dezakegu eta aurkitu behar dugu, eta Jainkoa pertsona ahulenengana eraman dezakegu eta eraman behar dugu. Kontua ez da “sekulako gauzak” egitea. Agian, besterik gabe, laguntasuna eman behar diogu bakardadean eta mesfidantzan murgilduta dagoen bizilagun horri, edota nerbio-depresioa duen gazte horrengandik gertu egon behar dugu, edota pazientzia izan behar dugu beste norbaitek entzutea nahi duen edadetu horrekin, nahiz eta gauza berberak hainbatetan errepikatu beharko dizkiogun. Agian, semea edo alaba espetxean duten guraso horiekin egon behar dugu, edota gurasoen banantzeak eragin dion haur bakarti horri aurpegia alaitu behar diogu.

FEDEDUNEN OTOITZA

Mariarekin batera, Jainkoaren handitasuna goratuko dugu, eta, haren bitartez, gure erreguak haren eskuetan jarriko ditugu, entzungo gaituela ziur jakinik.

1. Denok osatzen dugun Elizarengatik: zuhurtziaz eta egiaz aurkez dezagula Jesukristo Salbatzailea eguneroko bizitzaren erdian. *Eska diezaiogun Jaunari.*
2. Gure gobernatzaileengatik: erabakiak behartsuenen alde hartzeko oinarri gisa denontzako onura har dadin. *Eska diezaiogun Jaunari.*

3. Lehenengo Gabonen herrialdeko biztanleengatik, palestinarrengatik, israeldarrengatik eta lurralde haietako kristauengatik: bakea eta justizia gailendu daitezten.

Eska diezaiogun Jaunari.

4. Gipuzkoako Caritasengatik, gure parrokia, boluntario eta langileengatik: haien lana emankorra eta eredugarria izan dadin.

Eska diezaiogun Jaunari.

Jaso ezazu gure eskerra, Jauna, zeure Semea mundura bidali diguzulako, eskuzabalki, gu salbatzera, zeina zurekin bizi baita Espiritu Santuaren batasunean. Amen.

DIRU-BILKETA

Egun honetan bildutako dirua parrokiako Caritasek jasoko du, beharrezko funtsak izateko gure auzoan eta/edo herrian beharrik handiena duten pertsoneri eta familiei lagundu ahal izateko.

BAKEA

Lurreko bekaturik handiena gizakien arteko bereizkuntza eta liskarra da. Zorigaitzik handiena, berriz, pobrezian ozta-ozta bizi diren munduko herritarren erdien ezbeharrak ahaztea eta ez kezkatzea da. Ez da bakerik egongo guztion giza eskubideak errespetatzen ez badira eta justiziarik ez badago. Urtero, Gabonetan, Jainkoak bidaltzen digun bake-mezua entzuten dugu: aintza zeruetako Jainkoari eta bakea borondate oneko pertsoneri. Eman elkarri bakea eta eraman zuen etxe eta kaleetara.